BIZITZA PERTSONALA, FAMILIA ETA LANA **BATERAGARRI EGITEKO LAGUNTZEI** BURUZKO DEKRETU BERRIA



#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

FAMILIEN EGUNEROKO BIZITZA **ZAINTZEKO, ERANTZUNKIDETASUNEZ JOKATZEKO** ETA **ERRAZTEKO** BESTE URRATS BAT

LAGUNTZA-LERROAK:

1. ADINGABEAK ZAINTZEKO

2. MENDEKOTASUNA EDO OSASUN-EGOERA OSO LARRIA DUTEN SENITARTEKOAK ZAINTZEKO

3. 14 URTETIK BEHERAKOENTZAKO ZAINTZAILEAK KONTRATATZEKO

NORENTZAT DA?

Zaintzeko eszedentzia edo murrizketa behar duten langileentzat, edo 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko laguntza kontratatzen dutenentzat.

BETEKIZUN OROKORRAK

- Diruz lagundu daitekeen jarduketak irauten duen bitartean EAEn bizitzea eta erroldatuta egotea.
- Aldez aurretik erroldatuta dagoela egiaztatzea: eskaera egin baino urtebete lehenago, edo bost urte jarraian aurreko hamar urteen barruan.
- Besteren kontura lan egitea edo kooperatiba bateko bazkide langilea edo lan-bazkidea izatea.
- Gutxienez 59 egun diruz laguntzeko moduko egoeran egotea aurreko 365 egunen barruan.

BERRITASUNA:

59 egunek ez dute zertan jarraian izan: etenak izan daitezke azken urtean.

1. LERROA

ADINGABEAK ZAINTZEA



Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzeko edo lanaldia murrizteko laguntzak.

- **Eszedentzia:** adingabeak 3 urte bete arte.
- **Lanaldi-murrizketa:** 12 urte bete arte, gutxienez % 33ko murrizketarekin.
- Gurasoetako bat ez bada % 33ko murrizketara iristen, bien murrizketak batu ahal izango dira gutxienekora iristeko.
- Adingabe bakoitzeko laguntzaren gehieneko mugak: 900 eszedentzia-egun eta 2.700 murrizketa-egun familia-unitate bakoitzeko.
- Guraso bakarreko familietan eta zaintza esklusiboa dutenetan, mugarik gabeko laguntza 3 urtera arte eszedentzian eta 12 urtera arte murrizketan.
- Adingabeak % 33ko desgaitasuna edo handiagoa badu, murrizketa 18 urtera iritsi ahal izango da.

GAKO-ALDAKETA

Desagertu egiten dira emakume eta gizon bakoitzeko laguntzaren mugak: aurrerantzean familia-unitateak egunak banatuko ditu bere errealitatera hobekien egokitzen den eran.

2. LERROA

SENIDEAK ZAINTZEA



Bi azpilerro: aitortutako mendekotasuna eta osasun-egoera oso larria.

MENDEKOTASUNA

- Mendekotasun larria (II. maila) edo mendekotasun handia (III. maila) duten senitartekoak zaintzeko eszedentzia.
- Lanaldia gutxienez % 33 murriztea, edozein mailatako mendekotasuna duten senitartekoak zaintzeko.
- **Eszedentzia:** 730 eguneko laguntza zaindutako pertsona bakoitzeko.
- **Murrizketa**: denbora-mugarik gabe.

OSASUN-EGOERA OSO LARRIA

- Eguneroko bizitzako oinarrizko ekintzetarako, bereziki norberaren zaintzarako, laguntza behar duten senideak zaintzeko.
- Familia-loturak zabaltzen dira: ezkontidea edo bikotekidea, seme-alabak eta lehen edo bigarren mailako odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko senideak.
- **Eszedentzia:** 180 eguneko laguntza zaindutako pertsona bakoitzeko.
- **Murrizketa:** 360 eguneko laguntza zaindutako pertsona bakoitzeko.

ERANTZUKIDETASUNA

Seme edo alaba bat zaintzen denean, bi gurasoen murrizketak batu ahal izango dira, gutxieneko % 33ra iristeko.

3. LERROA

ZAINTZAILEAK KONTRATATZEA



14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko Etxeko Langileen Sistema Berezian alta emanda dagoen pertsona bat kontratatzeko laguntzak.

- **Gutxieneko kontratazioa**: 59 egun.
- Eskaera egiten den egunera arte Gizarte Segurantzan sartutako kuotak lagunduko dira diruz.
- Eskatzaileak kontratuaren titular gisa agertu behar du.
- Oro har, gurasoek lanaldi osoan lan egin behar dute; salbuespenak daude guraso bakarreko familientzat, familia ugarientzat, mendekotasuna, desgaitasuna edo genero-indarkeria dutenentzat.
- Adingabeak minbizia edo beste gaixotasun larriren bat badu, guraso bat % 99,99ra arteko lanaldi-murrizketan edo kontratazio partzialean egon ahal izango da.

1. ETA 2. LERROETAKO BERRIKUNTZA KOMUNAK



- Zenbatekoak % 10 igo dira.
- % 30eko igoera, ez metagarria, familia-egoera espezifikoetarako.
- Jarduera-aniztasuna onartzen da: laguntza autonomo-altarekin bateragarria da, aldi berean besteren konturako lana edo kooperatibako lana dagoenean.

NOLA ESKATZEN DIREN

- Egindako jarduketak lagunduko dira diruz, baina ez etorkizuneko aldiak.
- Lehenengo eskaera diruz laguntzeko moduko jarduketan 59 egun bete ondoren aurkez daiteke, eta egun horiek etenak izan daitezke.
- Jarraitzeko eskaerak emandako azken espedientetik lau hilabete igaro ondoren aurkez daitezke.
- Eskabide bakoitzean, gehienez ere, eskaera-dataren aurreko 365 egunak lagunduko dira diruz.

GARRANTZITSUA

Diruz lagundu daitezkeen aldi guztiak barne biltzeko, behar beste eskabide aurkez daitezke.

Informazio gehiago eta izapideak: euskadi.eus

EZ DIRA DIRUZ LAGUNTZEN

Besteak beste: greba, soldatarik gabeko edo guraso-baimena, jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko prestazioa, enplegua eta soldata etetea, edo minbizia edo beste gaixotasun larri bat duten adingabeak zaintzeagatiko prestazio jakin batzuk.